BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4569

EBAZPENA, 2013ko urriaren 3koa, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariarena, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko maiatzaren 8ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak ebazten dituena. Agindu horren bidez, erakunde publikoei immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren esparruko jardueretarako laguntzak emateko deialdia egiten da 2013 urterako.

AURREKARIAK

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko maiatzaren 8ko Aginduaren bidez (EHAA, 2013ko ekainaren 5ekoa), erakunde publikoei esku-hartze sozialaren esparruan programa, proiektu eta jardueretarako laguntza teknikoa edo administratiboa emateko eta horiek garatzeko laguntzetarako oinarriak zehaztu eta laguntza horietarako deialdia egiten da. Aipatutako Aginduaren III. kapituluan dirulaguntzen bigarren lerroa arautzen da: Immigrazioko teknikarien kontratazioaren jarraipenerako eta kultura arteko bizikidetzaren alorreko jardueretarako laguntzak. Eta, Agindu horren 18. artikuluak immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren esparruko jardueretarako erakunde publikoei zuzendutako dirulaguntzen aurrekontu kreditua zehazten du.

2.– 2013ko maiatzaren 8ko Aginduaren 19.2 artikuluak honakoak zehazten ditu: alde batetik, dirulaguntza eskuratzeko eskatzaileak bete beharreko betekizun eta baldintzak; eta, bestetik, dirulaguntzak esleitzeko irizpide zehatzak.

3.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzan Immigrazio teknikarien kontratazioarekin aurrera jarraitzeko dirulaguntza eskatu duten erakunde publikoak I. eranskinean adierazitakoak dira.

2013ko maiatzaren 8ko Aginduaren 8.4 artikulua betez, eta Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzako zerbitzuek landutako txosten teknikoa ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– II. eranskinean zehazten diren erakunde publikoei bertan adierazitako dirukopuruak ematea, ondorengo kontzeptupean: Immigrazioaren eta Kulturen arteko bizikidetzaren esparruko jardueretarako.

Bigarrena.– III. eranskinean jakinarazten diren dirulaguntza-eskabideak ukatzea.

Hirugarrena.– Emandako dirulaguntza bi epetan ordainduko da.

a) Aurreikusitako epea uko egin gabe igaro ondoren % 70 emango da, dirulaguntza onartzen den egunetik hasita hilabeteko epean.

b) Gainerako % 30, ondorengo puntuetan ezarritakoaren arabera zuritzen denetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko epean.

Laugarrena.– Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak plazaratu, zabaldu edo argitaratzen dituenean, nahitaez adierazi eta jasoarazi beharko du horietan Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza izan duela.

Bosgarrena.– Gastuen justifikazio orokorra 2014ko lehenengo bi hilabeteetan egingo da, jatorrizko egiaztapen-dokumentuen ekarpenaren bidez, edota, salbuespen gisa, dokumentu horien kopia konpultsatuen bidez edo dagokion erakunde publikoan fede publikoa duen pertsonak aldez aurretik ziurtagiria eman ondoren.

Seigarrena.– Dirulaguntzaren gastuak zuritzeko bidaltzen diren agiriak aztertu ondoren bigarren ordainketa gutxitu behar izatea gertatuz gero, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako guztia edo zati bat itzuli behar izanez gero, bai gehiegizko finantzaketa egon delako edo bai eskatutako ordainagiri guztiak aurkeztu ez direlako, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariak banakako kitapen-ebazpena emango du ziurtagiriak aurkezteko epea bukatzen denetik hasi eta bi hilabeteko epean, eta, hala badagokio, bi hilabeteko epea emango du, ebazpena jasotzen denez geroztik, itzuli beharrekoa itzultzeko.

Zazpigarrena.– Dirulaguntzak eta horien jasotzaileak ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariaren ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Gizarte Politiketako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 114 eta 115 artikuluek xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 3a.

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria,
JOSÉ LUIS MADRAZO JUANES.

I. ERANSKINA

TRAMITAZIORAKO ONARTUTAKO ESKABIDEEN ZERRENDA

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Egitasmoa
LOC-20130L/0001	Irungo Udala	Programa de mediación intercultural comunitaria
LOC-20130L /0002	Tolosaldea Garatzen S.A.	Elkar ezagutzen 2013
LOC-20130L /0003	Balmasedako Udala	Programa de sensibilización sobre convivencia intercultural en centros escolares
LOC-20130L /0004	Durangoko Udala	Programas en materia de convivencia interculrural
LOC-20130L /0005	Azpeitiako Udala	Esku-hartze psikosoziala arriskua egoeran dauden haur, gazte zein atzerritzar familiar
LOC-20130L /0006	Eibarko Udala	Programas en materia de inmigración y convivencia intercultural
LOC-20130L /0007	Iurretako Udala	Actividades dirigidas a la participación social, a la inmigración y a la convivencia intercultural en Iurreta. 2013
LOC-20130L /0008	Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea	Adin txikikoei eta gazteei zuzenduriko esku hartze programa
LOC-20130L /0009	Zarauzko Udala	Zarauzko immigrazioaren tokiko planaren garapena
LOC-20130L /0010	Bilboko Udala	Programa de actividades en materia de inmigración y convivencia intercultural
LOC-20130L /0011	Santurtziko Udala	Santurtzi izena-Denominación Santurtzi
LOC-20130L /0012	Urkabustaizko Udala	Proyecto para la convivencia intercultural en Urkabustaiz: Mil sabores y colores
LOC-20130L /0013	Eskoriatzako Udala	Atzerriko etorkin eta gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen gizarteratze zerbitzua
LOC-20130L /0014	Amorebieta-Etxanoko Udala	Amorebietako udalerriko ikastetxetako sensibilizazioa programa kulturartekotasuneko elkarbizitzarako.
LOC-20130L /0015	Kanpezuko Udala	Por la inclusión e integración Campezo 2013

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Egitasmoa
LOC-20130L /0016	Arabako Foru Aldundia	Programa de implementación de acciones destinadas a la integración social de las personas inmigrantes y al fomento de la convivencia intercultural en el territorio de Álava
LOC-20130L /0017	Getxoko Udala	Programa de acogida y convivencia intercultural en Getxo
LOC-20130L /0018	Ermuako Udala	Desarrollo del Plan local de inmigración 2013
LOC-20130L /0019	Azkoitiako Udala	Azkoitia aniztasuna 2013
LOC-20130L /0020	Donostiako Udala	Programa de mediación para la convivencia intercultual.
LOC-20130L /0021	Portugaleteko Udala	Programa de inmigración y convivencia intercultural. El desarrollo de la convivencia e integración de la inmigración y la diversidad como oportunidad social
LOC-20130L /0022	Pasaiko Udala	Etorrerarako, harrerarako, kokapenerako eta elkarbizitzarako programa «Diferentes orígenes, un mismo pueblo», «Jatorri askotarikoak, herri bakarrá»
LOC-20130L /0023	Berrizko Udala	Programa de intervención para la mejora de la convivencia intercultural
LOC-20130L /0024	Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua	Zurrumurruak gainditu
LOC-20130L /0025	Arrasateko Udala	Etorkinei harrera zerbitzua-Herritarentzako bat-bateko itzulpen sistema
LOC-20130L /0026	Basauriko Udala	Planificación anual 2013 del ayuntamiento de Basauri para la intervención en la gestión migratoria, la acogida, la inclusión y el fomento de la convivencia intercultural
LOC-20130L /0027	Lekeitioko Udala	Talleres interculturales: cocina intercultural
LOC-20130L /0028	Durangaldeko Merinaldearen Amankomunazgoa	Competencias pre-laborales, habilidades, competencias y actitudes aplicadas al ámbito laboral
LOC-20130L /0029	Urretxuko Udala	Etorkinentzako Urretxuko harrera plana diseinatzea
LOC-20130L /0030	Bideberri Mankomunitatea	Atzerriko etorkin eta gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen gizarteratze zerbitzua

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Egitasmoa
LOC-20130L /0031	Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	Programa de sensibilización intercultural con población infantil y adolescente en centros escolares y ludotekas y udalekus de Busturialdea
LOC-20130L /0032	Barakaldoko Udala	Programa de acogida, inclusión social de personas inmigradas, gestión de la diversidad cultural y promoción de la convivencia intercultural del ayuntamiento de Barakaldo
LOC-20130L /0033	Vitoria-Gasteizko Udala	Estrategia 2013 para la primera acogida de personas inmigrantes extranjeras y la promoción de la convivencia intercultural en el municipio de Vitoria-Gasteiz

II. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espedientea	Erakundea	Egitasmoa	Dirulaguntza
LOC-20130L/0001	Irungo Udala	Programa de mediación intercultural comunitaria	20.623,42
LOC-20130L /0002	Tolosaldea Garatzen S.A.	Elkar ezagutzen 2013	11.960,01
LOC-20130L /0003	Balmasedako Udala	Programa de sensibilización sobre convivencia intercultural en centros escolares	507,34
LOC-20130L /0004	Durangoko Udala	Programas en materia de convivencia interculrural	43.850,40
LOC-20130L /0005	Azpeitiako Udala	Esku-hartze psikosoziala arriskua egoeran dauden haur, gazte zein atzerritzar familiar	10.500,00
LOC-20130L /0006	Eibarko Udala	Programas en materia de inmigración y convivencia intercultural	4.035,63
LOC-20130L /0007	Iurretako Udala	Actividades dirigidas a la participación social, a la inmigración y a la convivencia intercultural en Iurreta. 2013	10.525,90
LOC-20130L /0009	Zarauzko Udala	Zarauzko immigrazioaren tokiko planaren garapena	28.582,50
LOC-20130L /0010	Bilboko Udala	Programa de actividades en materia de inmigración y convivencia intercultural	47.988,55
LOC-20130L /0011	Santurtziko Udala	Santurtzi izena-Denominación Santurtzi	2.040,00
LOC-20130L /0013	Eskoriatzako Udala	Atzerriko etorkin eta gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen gizarteratze zerbitzua	4.468,63
LOC-20130L /0014	Amorebieta-Etxanoko Udala	Amorebietako udalerriko ikastetxetako sensibilizazioa programa kulturartekotasuneko elkarbizitzarako.	2.594,78

Espedientea	Erakundea	Egitasmoa	Dirulaguntza
LOC-20130L /0016	Arabako Foru Aldundia	Programa de implementación de acciones destinadas a la integración social de las personas inmigrantes y al fomento de la convivencia intercultural en el territorio de Álava	12.562,50
LOC-20130L /0017	Getxoko Udala	Programa de acogida y convivencia intercultural en Getxo	61.440,00
LOC-20130L /0018	Ermuako Udala	Desarrollo del Plan local de inmigración 2013	23.940,00
LOC-20130L /0019	Azkoitiako Udala	Azkoitia aniztasuna 2013	20.209,26
LOC-20130L /0020	Donostiako Udala	Programa de mediación para la convivencia intercultual.	19.645,24
LOC-20130L /0021	Portugaleteko Udala	Programa de inmigración y convivencia intercultural. El desarrollo de la convivencia e integración de la inmigración y la diversidad como oportunidad social	17.359,50
LOC-20130L /0022	Pasaiko Udala	Etorrerarako, harrerarako, kokapenerako eta elkarbizitzarako programa «Diferentes orígenes, un mismo pueblo», «Jatorri askotarikoak, herri bakarrá»	45.024,28
LOC-20130L /0023	Berrizko Udala	Programa de intervención para la mejora de la convivencia intercultural	4.284,00
LOC-20130L /0024	Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua	Zurrumurruak gainditu	2.835,00
LOC-20130L /0026	Basauriko Udala	Planificación anual 2013 del ayuntamiento de Basauri para la intervención en la gestión migratoria, la acogida, la inclusión y el fomento de la convivencia intercultural	54.121,53
LOC-20130L /0027	Lekeitioko Udala	Talleres interculturales: cocina intercultural	1.530,00
LOC-20130L /0028	Durangaldeko Merinaldearen Amankomunazgoa	Competencias pre-laborales, habilidades, competencias y actitudes aplicadas al ámbito laboral	2.811,37

Espedientea	Erakundea	Egitasmoa	Dirulaguntza
LOC-20130L /0031	Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	Programa de sensibilización intercultural con población infantil y adolescente en centros escolares y ludotekas y udalekus de Busturialdea	6.975,00
LOC-20130L /0032	Barakaldoko Udala	Programa de acogida, inclusión social de personas inmigradas, gestión de la diversidad cultural y promoción de la convivencia intercultural del ayuntamiento de Barakaldo	45.222,08
LOC-20130L /0033	Vitoria-Gasteizko Udala	Estrategia 2013 para la primera acogida de personas inmigrantes extranjeras y la promoción de la convivencia intercultural en el municipio de Vitoria-Gasteiz	63.840,00

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Eskatutako jarduera	Ukatzeko arrazoia
LOC-20130L /0008	Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea	Adin txikikoei eta gazteei zuzenduriko esku hartze programa	50 puntu edo gehiaho lortu ez duelako
LOC-20130L /0012	Urkabustaizko Udala	Proyecto para la convivencia intercultural en Urkabustaiz: Mil sabores y colores	50 puntu edo gehiaho lortu ez duelako
LOC-20130L /0015	Kanpezuko Udala	Por la inclusión e integración Campezo 2013	50 puntu edo gehiaho lortu ez duelako
LOC-20130L /0025	Arrasateko Udala	Etorkinei harrera zerbitzua-Herritarentzako bat-bateko itzulpen sistema	50 puntu edo gehiaho lortu ez duelako
LOC-20130L /0029	Urretxuko Udala	Etorkinentzako Urretxuko harrera plana diseinatzea	50 puntu edo gehiaho lortu ez duelako
LOC-20130L /0030	Bideberri Mankomunitatea	Atzerriko etorkin eta gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen gizarteratze zerbitzua	50 puntu edo gehiaho lortu ez duelako